

2016-04-26KO OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2016ko apirilaren 26an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, korporazioko alkate-lehendakaria, eta gaiak aztertzeko zinegotzi hauek agertu dira:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: 0.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, eta Jose Ignacio Imaz Bengoechea.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Olaia Nieto Legarra (gaixorik dagoela adierazi du).

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTA ONARTZEA (2016-03-22).

2016ko martxoaren 22ko bilkuraren aktaren zirriborroa aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016/54 DEKRETUTIK 2016/77 DEKRETURA ARTE.

Alkateak dekretu hauen berri eman dio Udalbatzari: 2016ko 54. zenbakitik 2016ko 77. zenbakira bitartekoak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Eztabaida hau izan da :

-Ainhoa Ugalde zinegotziak dekretu bati buruz galdetu du: pertsona bati erroldatzea ukatu zaio eta zergatia galdetzen du, kontuan hartuz legeak edozein lekuan erroldatzen uzten duela.

Idazkariak erantzun du bere ohiko egoitza Iruran ez daukalako izan dela arrazoia, eta ez non lo egiten duen.

-Mikel Iturbe zinegotziak azalpenak eskatu ditu enpresa bat zigortu delako zaborrengatik.

Alkateak erantzun du ez dela zigortua izan, espediente besterik ez zaiola ireki.

Mikel Iturbe zinegotziak adierazi du beste enpresa batek ere gaizki egin duela eta ez dela zigortua izan; aldiz, lehen enpresa hau zigortu egin dela eta hori nahiko arraroa egiten zaiola.

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du aurreko legealdian zaborrengatik isunak jartzea oso gaizki iruditzen zitzaizela oraingo udal gobernuko kideei eta, orain, isunak hasi direla ezartzen.

HIRUGARREN GAIA

IRURAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ZUZENKETAREN AGIRIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2012ko maiatzaren 22an Foru Aldundiak Irurako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartu zuen, 2012ko uztailaren 9ko eta abuztuaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetan argitaratu zena gero.

Orain, industria-erabilerako hiri-lurzoruaren "Ibaiondo 1" 17 eremuan akats bat dagoela antzeman da, tokiko bide publikoen bilbe grafikoari dagokiona, horrela agertu behar den puntu batean (Sortu bidea). Horrekin batera erantsi dira udal-jabetzaren ziurtagiria eta Plan Orokorraren erredaktore-taldeak idatzitako proiektu teknikoa.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko

Con fecha 22 de mayo de 2012, la Diputación Foral aprobó el Plan General de Ordenación Urbana de Irura, posteriormente publicada en los Boletines Oficiales de Gipuzkoa de fechas 9 de julio y 13 de agosto de 2012.

Ahora se ha observado un error, en el área 17 "Ibaiondo 1" de suelo urbano de uso industrial, referente a la trama gráfica de viales públicos locales, en un punto (vial de Sortu) que debe de aparecer como tal. Se acompaña certificación de su titularidad municipal y el correspondiente Proyecto Técnico redactado por el equipo redactor del Plan General.

De acuerdo con el art. 105.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del

30/1992 Legearen 105.2 artikulua betez, "Herri Administrazioek, halaber, edozein unetan zuzen ditzakete, ofizioz edo interesdunen eskaerari erantzunez, akats materialak, egitatezkoak edo aritmetikoak."

Procedimiento Administrativo Común: "Las Administraciones Públicas podrán, así mismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos existentes en sus actos."

Ikusita idazkari kontu-hartzailearen txostena.

Visto el informe del Secretario - Interventor.

Toki Erregimeneko Oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen c) ataleko 22.2 artikuluan jasotakoa betez, eta aipatu den Legearen II) atalaren 47.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, udal kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa izanik, Udalbatzak aho batez erabaki du honakoa:

La Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, que representan el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 22.2, apartado c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local y con lo dispuesto en el art. 47.3, apartado II) de la citada Ley, lo siguiente:

ERABAKIA

ACUERDO:

Lehen.- Irurako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren akats zuzenketa aipatu den dokumentu teknikoaren behin-behineko onarpena ematea.

Primero.-Aprobar provisionalmente el documento técnico citado comprensivo de la corrección de errores del Plan General de Ordenación Urbana de Irura.

Bigarrena.- Espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, behin betiko onarpena eman diezaion.

Segundo.-Remitir el expediente a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su aprobación definitiva.

LAUGARREN GAIA

IRURAKO UDALEKO 2015EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA JAKINARAZTEA.

Jakinarazi da 2016ko martxoaren 31ko 61/16 Alkate-dekretua:

"Udal honen 2015eko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2015eko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2015-12-31n:		525.859,36
		+145.880,97
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2015-12-31n:		
Aurrekontuko zordunak :	141.426,11	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	4.342,17	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	112,69	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2015-12-31n:		-320.504,03
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	44.333,44	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	276.338,89	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	-168,30	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		+351.236,30
5.- Saldo kobraezinak:		-70.881,10
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		+280.355,20
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		+280.355,20
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		+67.141,63
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		-4.891,96
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		+77.481,08
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		+139.730,75
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		0,00
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		142.861,36
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):		124.861,36

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari jakinaraztea kobratzeko zailak edo kobraezinak diren eskubideak zehazteko irizpideak hauek direla:

- Joan den urteko ekitaldi ekonomikoan kobratzeko eskubideetatik ordaindu gabe dagoen kopurua %50ean murriztuko dela.

- Duela bi urteko edo gehiagoko ekitaldi ekonomikoetan, kobratzeko eskubideetatik ordaindu gabe dagoen kopurua %100ean murriztuko dela.

Laugarrena.- Dekretu honi eranstean zaion idazkari kontu-hartzailearen txostenaren bidez honakoa jakinarazi zaio Udalbatzari: Likidazio honek betetzen duela aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren araudia. Baina gastu araua ez duela betetzen.

Ikusita arau hori ez duela betetzen diruzaintza gerakina erabiltzeagatik, Udalbatzari kontu-hartzailearen txostenaren bidez jakinarazi zaio Udalaren finantza iraunkortasuna ona dela eta horregatik ez dagoela behartuta plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Bosgarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran."

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Eta Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du bere taldea (EH Bildu) ez dagoela ados likidazio honekin, ez delako gauzatu plazako zahar-etxeke lokalaren proiektua.

BOSGARREN GAIA

TASEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA BEHIN BEHINEAN ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkatetzak, Kultura batzordearen proposamena ikusita, tasa honen eduki berria onartzea proposatu du, azaldu diren arazoak konpontzeko.

Por parte de la Alcaldía, se propone aprobar la nueva redacción de esta Tasa, de cara a solucionar todos los problemas planteados y vista la propuesta de la Comisión de Cultura.

Hori ikusita, eta aho batez, Udalbatzak hau onartu du:

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

1.- Behin-behinekoz onartzea Irurako Udaleko zerga-ordenantza hauek aldatzea:

1º.-Aprobar con carácter provisional la Modificación de las siguientes Ordenanzas Fiscales de este Ayuntamiento de Irura:

6. TRINKETEA ETA FRONTOIA ERABILTZEKO TASA:

6. TASA POR LA UTILIZACIÓN DE LOS SERVICIOS DEL TRINKETE Y FRONTÓN:

1. Trinketea.

A) Hileko abonua: 7 euro.

— 14 urtetik gorako norbanako helduentzat.

— Familiakoa: Familiako kide bakoitzeko 7 euro (14 urtetik beherakoek %50eko beherapena).

— Familia ugaria: %20ko beherapena edo hobia.

— Jubilatuak: %20ko beherapena edo hobia.

— Langabetuak: %20ko beherapena edo hobia.

—Gazte txartela: %20ko beherapena edo hobia.

B) Ez erroldatuak: Hileko abonua: 10 euro.

C) Hobarien muga: Beherapenen batuketak ezin du gaintitu tasaren hasierako kopuruaren %50.

Sartzen diren zerbitzuak: gimnasioa, boulder-aretoa, dutxak, kantxa erabiltzeko beherapena (1 euro pertsonako eta orduko) eta kirol-eskoletarako beherapena (%10).

— Abonatu-txartel berria egiteagatik (galdu edo baliogabetu delako): 2 €.

B) Eguneko bonua: 2,5 euro.

Sartzen diren zerbitzuak: dutxak eta gimnasioa.

C) Aurrez eskatutako orduak: 10 euro orduko, goizean.

Aurrez eskatutako orduak: 15 € arratsaldean.

Sartzen diren zerbitzuak: Gimnasioa, dutxak eta argia kantxan.

2. Frontoia:

— Orduko: 6 euro gehi argia.

1. Trinquete:

A) Abono mensual: 7 euros.

—Individual para mayores de 14 años.

—Familiar: 7 euros por cada miembro familiar (los menores de 14 años, con el 50% de descuento).

—Familia numerosa: 20% de descuento o bonificación.

—Jubilados: 20% de descuento o bonificación.

—Desempleados: 20% de descuento o bonificación.

—Tarjeta joven: 20% de descuento o bonificación.

B) No Empadronados. Abono mensual: 10 €

C) Límite beneficios: La suma de todos descuentos no podrá superar el 50% del importe inicial de la tasa.

Servicios incluidos: gimnasio, salón de boulder, duchas, descuento para utilizar la cancha (1euro x persona x hora) y descuento para cursillos deportivos (10%).

—Por expedición de nueva tarjeta de abonado (en caso de pérdida, inutilización.): 2€.

B) Bono diario: 2,5 euros.

Servicios incluidos: duchas y gimnasio.

C) Horas reservadas: 10 euros por hora, por la mañana.

*Horas reservadas: 15 euros, por la tarde

Servicios incluidos: Gimnasio, duchas y luz en la cancha.

2. Frontón:

—Por hora: 6 euros + luz.

Trinketea erabiltzeagatik ez dute ordaindu beharrik izango udal pilota eskolako erabiltzaileek, eskolako edo irakaskuntzako erabilpena ematen dietenek eta udal-arautegian ezarritako gainontzekoek.

Adierazitako tarifa hauek ez zaizkie ezarritako trinketea erabiltzen dutenei kirol-lehiaketa edo ikuskizunetarako, edo bestelako ikuskizunetarako. Lehiaketa edo ikuskizun hauek modu honetan arautuko dira: dagokion baimena emateko akordioan udalak ezartzen duen eran.

Aplikaziozko arauak.

Trinkete-frontoia.

1. Harpidedun gisa alta emateko, dagokion udal-bulegoetan eskaera aurkeztu beharko da. Hobaridunek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte, baldintza hori egiaztatzeko:

- Udalerri honetan erroldatuta egotea, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean.
- Irurako Udalarekiko ordainketa guztiak egunean izatea.

- Familien kasuan, Bizilagunen Udal Erroldaren datuak kontuan hartuko dira soilik.

- Familia ugarien kasuan, familia-liburua eguneratuta.

- Erretiratuen kasuan (pentsiodunak edo 65 urtetik gorakoak), baldintza hori egiaztatzen duen edozein dokumentu.

Quedan exentos de la utilización de los servicios del Trinquete, la Escuela Municipal Deportiva de Pelota, usos escolares o de aprendizaje o aquellos que se establezcan en el Reglamento Municipal.

Quedan fuera de las tarifas señaladas la utilización del Trinquete para competiciones o espectáculos deportivos o de otro tipo que se regularán de acuerdo con lo que se establezca en el acuerdo municipal de autorización correspondiente.

Normas de aplicación.

Trinkete-frontón.

1. Para darse de alta por abonado deberá presentarse la correspondiente solicitud en las oficinas municipales correspondientes acompañando la siguiente documentación justificativa en el caso de las bonificaciones:

- Estar empadronado o empadronados en este Ayuntamiento al 1 de enero de cada año.

- Estar al corriente de todos los pagos con este Ayuntamiento de Irura.

- En caso de familia únicamente se tendrá en cuenta los datos que ofrezca el Padrón Municipal de Habitantes.

- En el caso de familia numerosa, el libro de familia numerosa actualizado.

- En el caso de jubilados (en el sentido de pensionista o persona mayor de 65 años) cualquier documentación justificativa de reunir dicha condición.

— Langabetuen kasuan, hori egiaztatzen duen dokumentua, dagokion Erakunde Ofizialak igorritakoa. Hobari horrek hiruhileko iraupena izango du.

Edozein unetan, Udalak dokumentuak eska ditzake, egiaztatzeko hobaridunak oraindik ere baldintza hori betetzen duela.

Hobaria eman zitzaioneko egoera aldatzen bada, onuradunak Udalari jakinarazi beharko dio, hurrengo hiruhileko naturala hasi aurretik. Bestela, hobariak itzuli beharko ditu.

2. Hileko ordaintzen kasuan, hobariak hilabete natural bat iraungo du (1etik 30-31ra). Eskaera hilabetea hasi aurretik eginez gero, harpidedunak hilabetearen hasierara arte itxaron dezake ordaintzen hasteko, edo osagarri bat ordaindu, aurreko hilabetearen truke. Eskaera hilaren 10a baino lehen aurkezten badu, hilabetea osorik ordaindu beharko du. Bestela, ez du ordaindu beharko.

Osagarria aldi bakarrean ordainduko luke, lehen ordainagiriarekin batera.

Ordainagiriak hilabete naturalaren hasieran ordainduko ditu, lehen hilabetearen 1a eta 15a bitartean, eta ordaintzaileak adierazitako kontuan zordunduko dira. Ordaintzak konturako zordunketen bidez egin daitezke soilik.

—En el caso de desempleado documentación justificativa de la Entidad Oficial correspondiente. Esta bonificación tendrá duración trimestral.

En cualquier momento el Ayuntamiento podrá requerir la presentación de la documentación justificativa de que sigue reuniendo esta condición.

En caso de variación de la condición que dé lugar a una bonificación, el beneficiado tendrá que dar cuenta del mismo, antes del comienzo del siguiente trimestre natural. En caso contrario se procederá al reintegro de las tasas bonificadas.

2. En el caso de abono mensual esta tendrá la duración de un mes natural (1 al 30-31). En el caso de presentarse la solicitud antes del comienzo de ese mes, el abonado podrá esperar al comienzo del mismo o pagar un suplemento por el mes anteriores. Si se presenta la solicitud antes del 10 del mes, se abonaría entero ese mes. En caso contrario no se abonaría. Este suplemento se abonaría una sola vez, con el primer recibo.

Los recibos se cargarán al comienzo de cada mes natural, entre el 1 y el 15 del primer mes en la cuenta bancaria señalada por el contribuyente. Sólo se admitirá la modalidad de cargo en cuenta corriente para realizar el ingreso.

3. Ordaintzerakoan, txartel elektronikoa emango zaio, gimnasioko instalazioak eta trinketeko dutxak erabiltzeko. Txartela pertsonala eta besterenezina izango da. Beraz, behar bezala erabiltzen ez bada, txartela kendu eta dagokion isuna ezarriko zaio erabiltzaileari.

Lehenbiziko txartela doakoa izango da; baina galdu edo hondatzen badu, tasan adierazitako prezioa ordaindu beharko du.

4. Baja emateko, dagokion baja-orria idatziz aurkeztu beharko du, eta emandako txartela itzuli.

5. Eguneroko bonua eta orduen erreserbak kirol-instalazioan bertan eskatuko dira.

Dagokion txartela jasotzerakoan, berme gisa, NAN agiria, gida-baimena, banku-txartela edo 5 euro utzi beharko ditu, eta txartela itzultzerakoan bueltan emango zaizkio.

9. Kirol eta kultura zerbitzuen tasa

A) Ikastaroak:

—Pilates. Matrikula (hiruhilero): 50 €.

—Yoga. Matrikula (hiruhilero): 105 €.

—Zumba: Matrikula (hiruhilero): 72 €.

—Areto bizikleta. Matrikula (hiruhilero): 90 €.

—Patinaia (hiruhilero): 40 €.

—Helduen capoeira. Matrikula (hiruhilero) 72 €.

—Helduen eskulanak: Matrikula (ikastaro osoa): 125 €.

—Haurren eskulanak: Matrikula

3. Con el abono, se cederá una tarjeta electrónica que servirá para usar las instalaciones del gimnasio y las duchas del trinkete. Esta tarjeta será personal e intransferible, por lo que su uso indebido, supondrá su retirada y la aplicación de la correspondiente sanción.

El primer uso será gratuito, pero en caso de pérdida o inutilización deberá abonar el precio señalado en la Tasa.

4. Para darse de baja deberá presentarse la correspondiente hoja de baja por escrito y aportarse la tarjeta cedida.

5. El bono diario y las reservas de horas se solicitarán en la propia instalación deportiva.

Al cederse la correspondiente tarjeta, se deberá dejar como garantía el DNI, carnet de conducir, tarjeta bancaria o 5 euros, que se devolverá a su entrega.

9. Tasa por prestación de servicios culturales y deportivos.

A) Cursos:

—Pilates. Matrícula (trimestral): 50,00 €

—Yoga. Matrícula (trimestral): 105,00 €

—Zumba: Matrícula (trimestral): 72€

—Ciclo indoor. Matrícula (trimestral): 90,00 €.

—Patinaje (trimestral): 40 €

—Capoeira adultos matrícula (trimestral): 72€

—Manualidades adultos: Matrícula (curso completo): 125€

—Manualidades niños: (curso completo): 60 €

(ikastaro osoa): 60 €.

—Haurren Antzerkia. Matrikula (ikastaro osoa): 60 €.

—Haurren capoeira. Matrikula (ikastaro osoa): 60 €.

—Haurren zumba. Matrikula (ikastaro osoa): 60 €.

—Haurren aloha. Matrikula (ikastaro osoa): 60 €+materiala

—Haurren dantza. Matrikula (ikastaro osoa): 30 €.

— Familia ugaria: %20ko beherapena edo hobaria.

— Jubilatuak: %20ko beherapena edo hobaria.

— Langabetuak: %20ko beherapena edo hobaria.

—Gazte txartela: %20eko beherapena edo hobaria.

-Hobarien Muga: Beherapenen batuketa ezin du gainditu tasaren hasierako kopuruaren %50.

b) Udalekuak:

1 aste: Iruran erroldatuak: 22 €

Ez erroldatuak: 44 €

2 aste: Iruran erroldatuak: 41,15 €

Ez erroldatuak: 88 €

3 aste: Iruran erroldatuak: 57,75 €

Ez erroldatuak: 132 €

4 aste: Iruran erroldatuak: 71,50 €

Ez erroldatuak 176 €

B) Hobari fiskalak:

— Familia ugaria: %10eko beherapena edo hobaria.

Bigarren seme-alabagatik, kostu osoari %10eko deskontua aplikatuko zaio.

Hirugarren seme-alabatik aurrera, kostu osoari %15.

Iruran erroldatuta ez daudenek ez

—Teatro niños (curso completo): 60,00€.

—Capoeira niños (curso completo): 60 €

—Zumba. Niños. Matrícula (curso completo): 60€

—Aloha (curso completo): 60 € +material.

—Danza niños (curso completo): 30 €

—Familia numerosa: 20% de descuento o bonificación.

—Jubilados: 20% de descuento o bonificación.

—Desempleados: 20% de descuento o bonificación.

—Tarjeta joven: 20% de descuento o bonificación.

-Límite de beneficios: La suma de los descuentos no puede superar el 50% del importe inicial de la tasa.

b) Campamentos:

1 Semana (empadronados): 22€

No empadronados en Irura: 44€.

2 semanas (empadronados): 41,15€

Id. Id. Id.: 88 €.

3 semanas (empadronados): 57,75€

Id. Id. Id.: 132 €.

4 semanas (empadronados): 71,50€

Id. Id. Id.: 176 €.

B) Beneficios fiscales:

—Familia numerosa: 10% de descuento o bonificación.

Se aplicará un descuento del 10% al costo total por el segundo hijo/a.

Se aplicará un descuento del 15% al costo total a partir del tercer hijo/a.

No se les aplicará descuentos por

dute deskonturik izango, ez bigarren ez hirugarren seme-alabagatik.

Nolanahi ere, izena emateko erabateko lehenetsuna izango dute Iruran erroldatuek.

Salbuespenak:

a) Erroldatuen tasa berbera kobratuko zaie Irurako ikastolan matrikulatutako ez-erroldatuei.

b) Ekonomikoki egoera zailean dauden familietako kideek, aurreko puntuetako murrizpenak aplikatu ondorengo kopuruaren %10 ordaindu ahal izango dute, gizarte langilearen agiria lortzen badute. (DSBE-RGIra lotua egongo da agiri hori).

Epez kanpo ekarritako izen-emate orriak onartuko dira baldin eta taldean plazarik bada.

Onartua izanez gero, eguneko 3 €-ko errekgua aplikatuko da. Inola ere ez da onartuko epez kanpoko izen-ematerik plazarik ez badago. Izena emateko eskaerak bat eta bakarra izan behar du familiako.

Behin izena eman ondoren, haurra Goizapasatik ezabatu nahi bada, ez da dirurik itzuliko.

2.- Akordioa eta espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Tokiko Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak jasotakoa betez, eta dagokion iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Udal honetako iragarki-taulan argitaratzea. Tramiterako, arau hauek beteko dira:

segundo-tercer hijo/a a los no empadronados en Irura.

En todo caso para inscribirse tendrán preferencia absoluta los empadronados en Irura.

Excepciones:

a) Se aplicará la tasa de empadronados a los alumnos matriculados en la ikastola de Irura que no estén empadronados en Irura.

b) Los miembros de familias con dificultades económicas abonarán el 10% de la cantidad correspondiente tras aplicar las bonificaciones de los puntos anteriores, presentando documento emitido por la asistenta social (Este documento va sometido al RGI).

Se aceptarán inscripciones fuera de plazo sólo si quedan plazas libres.

En caso de ser aceptado se aplicará un recargo de 3€ por día. En ningún caso se aceptará inscripciones fuera de plazo si no hay plazas. Las solicitudes de inscripción se harán una única vez y por familia.

Una vez inscrito, si el niño quiere dejar de acudir, no se devolverá el dinero.

2º.-Someter el acuerdo y el expediente tramitado a información pública, de acuerdo con las normas señaladas en la Norma Foral 11/1989, de 5 de Julio, de las Haciendas Locales de Gipuzkoa y mediante la publicación del Anuncio correspondiente en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y Tablón de Anuncios de esta Entidad. Las normas que regulan este trámite serán las siguientes:

a) Espedientea Udaleko Idazkaritza Kontu-hartzailetzan egongo da.

b) Espedientea aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko epea 30 egun balioduneko izango da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita (lehen egun baliodunetik), eta Udalbulegoko lanorduetan.

c) Erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan jasota datozenek.

d) Erreklamazioak Irurako Udaleko erregistro orokorrean edo Administrazio Prozeduraren Legearen 38. artikulua jasotako tokietan aurkeztu beharko dira.

e) Erreklamazioa Udalbatzaren aurrera eraman beharko dute.

3.- Erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordioa behin betiko bihurtuko da, eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

a) Lugar donde se encuentra el expediente: Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento.

b) Plazo para examinar y presentación de reclamaciones: 30 días hábiles desde el día siguiente hábil al de la publicación de este Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en horas hábiles de la Oficina Municipal.

c) Quién puede presentar reclamaciones: Los señalados en el art.17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

d) Donde se pueden presentar: En el registro General del Ayuntamiento de Irura o en los lugares señalados en el art. 38 de la Ley de Procedimiento Administrativo.

e) Ante quién se presenta la reclamación: El Pleno del Ayuntamiento.

3º.- En el caso de que no presente ninguna el acuerdo devengará en definitivo y se procederá a la publicación de su texto completo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

SEIGARREN GAIA

2016KO TOLOSALDEA GARATZEN S.A. AGENTZIAREN EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Tolosaldea Garatzen S.A. enpresaren kide garenez eta 2015ko abenduaren 17ko Batzar Orokorrean onartutako Kudeaketa Planean zehazten denaren arabera, 2016. urterako Tolosaldea Garatzeni egin beharreko ekarpena 9.907,00 eurokoa da.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du honakoa:

ERABAKIA

Ekarpenaren gastua onartzea eta ordaintzea.

ZAZPIGARREN GAIA

2016ko LOATZO MANKOMUNITATEAREN EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Loatzo Udalerrien Mankomunitateko kide da Irurako Udala, eta Mankomunitateko batzorde eragileak, 2016ko otsailaren 10ean egindako ohiko bilkuran, 2016 ekitaldirako aurrekontu orokorra eta 2016ko ekitaldirako udal ekarpenak onartu zituen. Irurako Udalaren kasuan ekarpen hori 52.096,12 eurokoa da.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du honako hau:

ERABAKIA

Ekarpenaren gastua onartzea eta ordaintzea.

Alkateak adierazi du aurreko ikasturtea baino garestiagoa dela eta, dirudienez, gastu gehiago izan direla.

ZORTZIGARREN GAIA

2016ko EUSKAL FONDOAREN DIRU-LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Euskal Fondoaren 2016ko diru-laguntzen programak ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du hau:

AKORDIOA

1.-Programa hauek laguntzea:

-Ecuadorreko lurrikararako: 2.000 euro.

-P264K: Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan garraio-azpiegitura laguntzea: 1.000 euro.

2.-Diru-laguntza hauek ordaintzea.

Ainhoa Ugaldek adierazi du hobeia izango zela aurrez batzordetik pasatzea, baina ados daudela erabakiarekin.

BEDERATZIGARREN GAIA
2016KO TOLOMENDIREN EKARPENA ONARTZEA, HALA
BADAGOKIO.

Irurako Udala Tolosaldeko Landa Garapen Elkartearen (Tolomendi) kide da eta 2016ko apirilaren 14an Tolosan egindako urteko Batzar Orokorrean 2016. urterako elkartearen aurrekontua onartu zen eta Irurako Udalari 2.813,42 € ordaintzea dagokio, Elkartearen funtzionamendurako.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

AKORDIOA

- 1.-2016ko ekarpena onartzea eta ordaintzea.
- 2.-Erabakia interesatuari jakinaraztea.

HAMARGARREN GAIA
DBL-AGI PRESTAZIOARI BURUZ EH-BILDU TALDEAREN MOZIOA
ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Aurkeztu da EH Bildu udal-taldearen Mozioa:

“Zioa

2011ko bukaeran, Eusko Jaurlaritzak gure Gizarte Zerbitzuen prestaziorik garrantzitsuenetako bat den Diru sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE, RGI erdaraz) kobratu ahal izateko eskatzen den erroldatze denbora igotzea erabaki zuen; zehazki, urtebete eskatzetik hiru urte eskatzera pasatu zen.

Horrek ekarri zuen, automatikoki, pertsona asko gure babes sistematik kanpo geratu zirela.

Murrizketa sozial horri aurre egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2012ko uztailean, Diru sarrerak Bermatzeko Laguntza (DBL, AGI erdaraz) sortu zuen, non prestazioa jasotzeko eskatzen den erroldatze denbora urtebetekoa den; hain zuzen ere, Patxi Lopezen gobernuak murrizketa egin aurretik, DBE kobratzeko, urteetan eskatu izan den erroldatze denbora.

Beste modu batean esateko, DBE urteetan izan duen erroldatze denborara itzuliko balitz, DBL berez desagertu egingo litzateke, lehen zeukan estaldura soziala berreskuratuko lukeelako. Murrizketa murriztuko litzateke.

DBL izeneko prestazioak izaera unibertsala dauka, hau da, baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei zuzenduta dago, berdin da nongoak diren, DBErekin beti gertatu izan den bezalaxe.

Gogoratu behar da DBLa Gipuzkoan bizi diren 1.422 familia unitatek jasotzen dutela eta familia horietan 700 ume daudela, legez babestu beharrekoak.

Foru Gobernu berriak hasieratik jarri nahi izan du zalantzan DBLa eta horretarako argudio xenofoboak erabili izan ditu, erakartze efektoa ("efecto llamada" delakoa) aipatuaz, badakienean onuradun kopurua egonkortu egin dela. Foru Aldundia Marotoren bidetik abiatu da murrizketa sozialak egiten jarraitzeko eta bere jarduera justifikatzeko.

Hori dela eta, Irurako Udalak honako mozio hau onartzen du:

1.- Irurako Udalak bere babesa adierazten die, Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile guztiei, inolako salbuespenik gabe; eta gogoratu nahi du ongizate soziala herritar eskubidea dela. Halaber, bere aitortza adierazi nahi die Gizarte Zerbitzuen langile guztiei, beraiek baitira eskubide horren bermea.

2.- Irurako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Diru sarrerak Bermatzeko Laguntza (DBL-AGI) izeneko prestazioa erasotzen jarraitzeari utzi eta, bereziki, hori justifikatzeko argudio xenofoboak bere hizkeratik desagertarazteko.

3.- Irurako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio DBL izeneko prestazioa bertan behera uzteko duen asmori uko egin diezaiola.

4.- Irurako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio planteatu diezaiola Eusko Jaurlaritzari Diru sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE-RGI) jaso ahal izateko eskatzen den erroldatze denbora hiru urteetatik urtebetera pasa dezala, hain zuzen ere, lehen zegoen bezala.

5.- Irurako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio mozio honen laugarren puntuan jasotakoa lehenbailehen burutu dezala."

Eta Alkateak hau adierazi du:

"DBLren arazo nagusia irla bat izatea da, Europako beste inon ez dagoen apartekotasun bat.

2012an DBLren abiaraztea finantzatu ahal izateko 2 laguntza ezabatu zituen.

Baina laguntza hori eskuratzeko behin-behineko mugarik zehaztu ezenez, DBLk migrazio-isuria artifiziaiki areagotu du Gipuzkoaraino. Horrela antzeman daiteke datu hauetan:

- Ez dago koherentziarik Gipuzkoan bizi diren etorkinen

"El principal problema de la AGI es ser una isla, una singularidad que no existe en ningún otro sitio de Europa.

En 2012 eliminó 2 ayudas destinada a la inserción para poder financiar la puesta en marcha de la AGI.

Sin embargo, al no fijarse un límite temporal para el acceso a esta ayuda, la AGI ha aumentado artificialmente el flujo migratorio hacia Gipuzkoa. Este efecto se observa en estos datos:

- No hay coherencia entre el origen de la población inmigrante que reside en

jatorriaren eta DBLren onuradunen jatorriaren artean. Nazionalitate batzuetan DBLren onuradunen ordezkariak etorkinena laukoizten du.

- Gipuzkoa izan da krisi ekonomikoan zehar etorkin-tasa murriztu ez duen Estatuko probintzia bakarra. 2011-2015 aldian etorkinen kopurua % 6 murriztu da EAEn, aldiz, % 4,5 igo da Gipuzkoan.

- EAEn bizileku-baimenik gabeko pertsonen erdia baino gehiago Gipuzkoan dago (% 60). Gainera, 2015ean, onuradunen erdiak baino gehiagok ez zeukan bizileku-baimenik, ezta lan-baimenik ere.

- Udalerrietan ezarpen irregularra du (%8,79 Ordizian eta %0,35 Urnietan), eta ez du pobrezia-tasekin zerikusirik, eraturako sarearen nazionalitatearekin baizik. Hainbat udalerritan, DBLk behar gehiago sortzen ditu hainbat arlotan (gizartea, hezkuntza, osasuna...), baina babes-sistemak ezin ditu horiek estali baliabide murriztuak dituelako.

Neurri horri buruzko kritikari dagokionez, 1400 pertsona eta 700 familia babesik gabe utziko lituzke, eta azpimarratu behar da ez dela inor bidetik utziko eta ezohizko neurriak proposatu direla jada Gipuzkoan bizi ziren eta adingabeak beren kargura dituzten familia etorkinen babesa bermatzeko.

Gipuzkoan gizarte-bazterkeria egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonen Elkar-Ekin planaren bidez emango zaie arreta.

Gipuzkoa y el origen de las personas beneficiarias de la AGI. En algunas nacionalidades la representación de las personas beneficiarias de la AGI cuadruplica a las personas inmigrantes

- Gipuzkoa ha sido la única provincia del Estado en la que no se ha reducido la tasa de personas inmigrantes durante el periodo de crisis económica. Durante el periodo 2011-2015 el nº de personas inmigrantes se ha reducido un 6% en la CAV mientras que en Gipuzkoa se ha incrementado en un 4,5%

- En Gipuzkoa se encuentra más de la mitad (60%) de todas las personas sin permiso de residencia de la CAV. Además más de la mitad de las personas beneficiarias en 2015 no tenían permiso ni de residencia, ni de trabajo.

- Su implantación entre los municipios es irregular (desde un 8,79% en Ordizia a un 0,35% en Urnietan), y no está relacionada con tasas de pobreza sino con la nacionalidad de la red constituida. En varios municipios la AGI genera más necesidades sociales, educativas, sanitarias... que el sistema de protección no puede cubrir porque los recursos son limitados

Respecto a la crítica sobre que la medida dejaría en desamparo a 1400 personas y 700 familias, destacar que no se va a dejar a nadie en la cuneta y que se han propuesto medidas excepcionales para garantizar la protección de las familias inmigrantes con personas menores que ya residen en Gipuzkoa.

Para las personas que se encuentran en Gipuzkoa en situación de exclusión social o en

Hirugarren sektorearekin eta udalekin aurrera eramaten ari garen plan horrek Gipuzkoan bazterkeriaren gaia modu integralean jorratzen du, gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko ikuspegitik betiere.

Zifra 1400 onuradunetan egonkortu bada ere, etorkin gehiago jaso ditugu, eta 2015ean 1325 eskaera berri egon ziren.

Hau da eskatzailearen profila: gizonezkoa (% 68), bakarrik bizi da (% 67) eta atzerritarra da (% 98,5).

Gehien kezkatzen gaituena da DBLk ez duela laguntzaren onuradunak integratzea eta gizarteratzea lortu, eta Diru-sarreraren Bermerako Errenta lortzeko tarteko urrats moduan bakarrik balio duela.

Oinarrizko gastuen estaldura hobetzea ez da foru aldundien eskumenekoa, eta Diru Sarreraren Bermerako Euskal Sisteman kokatu eta EAE osoan homogeneouski aplikatu behar da.

Egoera hori dela eta, proposamenak neurri hauek biltzen ditu:

1-DBL eskuratzeko epemuga zehaztea, migrazio-isuria normalizatzeko.

2-Gizarte-erakundeekin eta tokiko erakundeekin plan bat ezartzea pertsonen gizarteratzen laguntzeko prozesuak sustatzeko. Xedea pertsona horiei integratzen laguntzea da, eta, horretarako, bizi-proiektu bat diseinatzea ahalbidetuko dieten tresnak eta baliabideak eskaintzea. Hori bakarrik Gipuzkoara modu naturalean iristen diren eta denon

riesgo de exclusión social se les atenderá mediante el plan Elkar-Ekin, un plan que estamos desarrollando con el tercer sector y los Ayuntamientos y que aborda de manera integral la exclusión en Gipuzkoa, trabajando siempre desde el punto de vista de la inserción social y laboral.

El hecho de que se haya estabilizado en 1400 personas beneficiarias no quiere decir que no siguen llegando personas ya que en 2015 hubo 1325 nuevas solicitudes

El perfil del solicitante es varón (68%) que vive solo (67%) y extranjero (98,5%).

Lo que más nos preocupa es que la AGI no ha logrado la integración ni inserción de las personas beneficiarias de la ayuda y únicamente sirve como paso intermedio hacia la RGI

La mejora de cobertura de los gastos básicos no es competencia de las diputaciones y debe enmarcarse en el Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y aplicarse de manera homogénea en toda la CAV

Ante esta situación, la propuesta establece las siguientes medidas:

1-Fijar una fecha límite de acceso a la AGI para normalizar el flujo inmigratorio

2-Acordar con las entidades sociales y las entidades locales un plan que permita impulsar los procesos que acompañan a las personas en sus itinerarios hacia la inclusión social. El objetivo es ayudar a integrarlas ofreciéndoles herramientas y recursos que les permitan diseñar un proyecto de vida. Esto sólo se puede ofrecer a aquellas personas que, de manera natural, lleguen a Gipuzkoa y a

artean gizartera ditzakegun pertsoneri eskaini ahal zaie.

3-GIZARTE BAZTERKERIA
EGOERAN EDO HORI JASATEKO
ARRISKUAN DAUDEN
PERTSONAK GIZARTERATZEKO
ELKAR-EKIN PLANA MARTXAN
JARTZEA.

Ez da murrizketa bat, DBLren diruaren parte bat (11 milioi euro inguru) modu eraginkorragoan bideratzea baizik, pertsona guztiak gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko helburuarekin.

EH BILDU alderdiaren eredu eta EAJ alderdiarena ez datoz bat; EH BILDUK prestazio ekonomikoa mantentzearen alde apustu egiten du, oinarritzeko baldintza batekin, erroldatuta egotea; guk, aldiz, gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonak egoera horretatik irteteko baliabideak dituen sistema baten alde apustu egiten dugu, hots, gizarte-bazterkeria betikotzearen kontra egiten dugu.”

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du PNVk Diputazioan ahailekin guztiak egiten dituela Diputazioko Gobernuan Bilduk egin zituen lanak ezabatzen: aberatsaren zerga kendu dute, zezenketekin berriz hasi dira, erraustegiarekin ere bai eta, orain, pobreentzako laguntza kendu nahi dute. Hauteskundeetan banatutako paperetan, PNVk Bilduren legealdiari buruz esan zuen oso ideologizatua izan zela, eta, orain, PNVrena ere oso ideologizatua da, baina beste ideologia batekin. Horregatik, PNV gezurretan ibili da: Bildu ideologiarekin dabil, baina PNV ez, alderdi praktikoa bakarrik da. Bigarren aldiz, oso larria iruditzen zaie etorkinak erabiltzea laguntza hori kentzeko. Noski, asko dira laguntzak jasotzen dituztenak, baina ahoz beti erabiltzen dira ahoz :pobreei, errefuxiatuei lagundu behar zaiela, baina, gero, dauden laguntzak kentzen zaizkie. Egia esateko, hemen, mahairen inguruan kanpotik etorritako korporatiboak badaude, etorkinak esaterako, eta diru-laguntzak jaso dituztenak ere bai, eta horregatik galdetzen du Imazek: Iruran zenbat pertsonak jasotzen dute

las que entre todos y todas podamos integrar en nuestra sociedad.

3-PUESTA EN MARCHA
DEL PLAN ELKAR-EKIN PARA
TRABAJAR LA INSERCIÓN DE
LAS PERSONAS EN RIESGO O
EN EXCLUSIÓN SOCIAL.

No se trata de un recorte sino de destinar el dinero de la AGI, entorno a los 11 millones de euros de manera más eficaz e incidiendo en lograr la inserción social y laboral de todas estas personas.

Se trata de un choque de modelos entre EH BILDU y EAJ, mientras EH BILDU apuesta por mantener la prestación económica con el requisito fundamental de estar empadronado, nosotros apostamos por un sistema en el que existan recursos para que las personas en exclusión social puedan salir de esta situación, esto es, apostamos por no perpetuar la exclusión social.”

AGI? Sei pertsonak, esan du. Eta beste lurraldeetan (Nafarroan, adibidez) etorkinen ehunekoa Gipuzkoan baino altuago da.

Eta hori guztia ikusita, Mozioari uko egin zaio aldeko 3 botorekin (Bildu) eta aurkako 5 botorekin (PNV).

HAMAIKAGARREN GAIA ERREFUXIATU ETA ASILO-ESKATZAILEEI BURUZ EH BILDUREN MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

EH Bildu udal-taldeak errefuxiatu eta asilo-eskatzzaileei buruzko mozioa aurkeztu du, eta EAJ/PNVko udal-taldeak beste bat aurkeztu du gai berari buruz, baina, dirudienez, azken mozioa ez da e-mailez bidali eta, horregatik, aho batez erabaki da mahai gainean uztea, datorren Osoko Bilkuran Udalbatzak eztabaidatzeko.

HAMABIGARREN GAIA KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.

Kontu hartzailearen txosten hau jakinarazi da:

2015. EKITALDIAN ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA.

2/2012 Lege Organikoak, apirilaren 27koak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoak, ekarri du batez besteko epea kontzeptua (OBE). Kontzeptu honek azaltzen du zor komertziala ordaintzeko erabili den denbora edo izan den atzerapena. Horrela Administrazio Publiko guztiek, gardentasun-ariketa berri batean, ordaintzeko batez besteko epea argitaratu beharko dute. Atxikita dauden orrietan Irurako Udalari 2015eko hiruhilabeteko bakoitzeko ordainketa epeari buruzko txostenak jakinarazten dizkizuet.

Horren laburpena hau da:

- 1. hiru hilabeteko epea: 7,27 egun.
- 2. hiru hilabeteko epea: 9,28 egun.
- 3. hiru hilabeteko epea: 17,94 egun.
- 4. hiru hilabeteko epea: 21,35 egun.

Kopuru negatiboa agertzen bada, fakturak jarritako epean baino denbora gutxiagoan ordaintzen direla esan nahi du. Kopurua positiboa bada, epea pasata ordaintzen direla esan nahi du.

Hiru kasuetan positibo agertzen da. Hala ere, lege barruan gaude, muga 30 egunekoa baita.

Eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Galdera-eskarien atalaren aurretik ondorengo gaia tratatu da, presazko egoera adierazi baitute, aho batez, batzarkideek, eta hauek Udalbatzarraren partaideen legezko gehiengo osoaren botoa osatzen baitute:

HAMAHIRUGARREN GAIA
DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN UDAL-
ORDENANTZAREN ALDAKETA ONARTZEA.-

Diru-laguntzak ematea arautzen duen Udal-ordenantzaren V. eranskina aldatu nahi da, eta proposamen hau aurkeztu da:

Se propone modificar el Anexo V de la Ordenanza Municipal Reguladora de Otorgamiento de Ayudas Económicas (Bases Reguladoras de la concesión de subvenciones para abonar los impuestos municipales), con la siguiente propuesta:

Diru-laguntzak ematea arautzen duen Udal-ordenantzaren V. eranskina da, (Udal zergak ordaintzeko diru-laguntzak emateko Oinarri arautzaileak).

Ordenanza Municipal Reguladora de Otorgamiento de Ayudas Económicas Anexo V (Bases Reguladoras de la concesión de subvenciones para abonar los impuestos municipales).

V. ERANSKINA

ANEXO V.

1.- URA eta ZABORRAK ordaintzen laguntzeko baremo berdina erabiliko da.

1.- Se usará el mismo baremo para el abono de las ayudas de AGUA Y BASURA.

URA - ZABORRA		
KIDEAK	LAGUNTZA - %75	LAGUNTZA - %30
1	LGS + % 10	LGS + %40
2	LGS + %20	LGS + %50
3	LGS + %30	LGS + %60
4	LGS + %40	LGS + %70
5	LGS + %50	LGS + %80
6	LGS + %60	LGS + %90

LGS 2016: 655,20 €

AGUA - BASURA		
Miembros	SUBVENCION 75%	SUBVENCION - 30%
1	SMI + 10%	SMI + 40%
2	SMI + 20%	SMI + 50%
3	SMI + 30%	SMI + 60%
4	SMI + 40%	SMI + 70%
5	SMI + 50%	SMI + 80%
6	SMI + 60%	SMI + 90%

SMI 2016; 655,20 €

2.- Diru-sarrerak zenbatzerakoan, oinarrizko premiei dagozkien gastuak deskontatu egingo dira, hau da, ohiko etxebizitza gastuak (alokairua edo mailegua), eta bestelako ezinbesteko gasturik balego, batzordearen esku utziko litzateke kopuru hori deskontatzeko aukera. (Adib.: osasun gasturen bat ...).

Alokairurako laguntzarik jasoko balute, laguntza kopuru hori ez da kontuan hartuko deskontua egiteko, beraien kontura doan kopurua baizik.

3.- Lanaren bidez datozen diru-sarrei lan pizgarrien 2011ko otsailaren 14ko AGINDUA aplikatuko zaie.

Urtero bidaltzen digute diputaziotik kalkulurako Excela. Lehen bezala, aurreko eta ondorengo belaunaldiengatik jasotako diru-sarriren erdia kontabilizatuko da, hauei ez zaie lan pizgarrien agindua aplikatuko.

2.- Al calcular la subvención, se descontará los gastos de las necesidades básicas: gastos ordinarios de la vivienda (renta de alquiler o cuotas de préstamo) y si hay otros gastos imprescindibles, la comisión decidirá si se descuenta o no (gastos de salud...)

Si recibiera ayudas para el alquiler, la misma no se tomará en cuenta para descontar, solamente la cantidad que vaya a cuenta del solicitante.

3.- A los ingresos procedentes de empleo se les aplicará la Orden del 14 de febrero de 2011 de estímulos al empleo.

Cada año nos mandan de Diputación un Excel para el cálculo. Como antes la ayuda por ascendientes y descendientes se contabilizará la mitad y no se les aplicará la orden de estímulo para el trabajo.

4.- Ordenantzak dio eskatzailea zerbitzuaren titularra behar duela izan, eta, ondorioz, eskatzaileak ziurtatu beharko duela bera dela ordainketa egiten duena.

4.- La Ordenanza exige que el solicitante sea el titular del servicio y en consecuencia, el solicitante deberá acreditar que es el mismo el que realiza el pago.

ZAILTASUN EKONOMIKOAK DITUZTEN FAMILIAK

FAMILIAS CON DIFICULTADES ECONÓMICAS

Ekonomikoki egoera zailean daudenek, GOIZA-PASA eta GAZTELEKUKO ekintzetan %10 ordainduko dute (bestelako murrizpenak aplikatu ondorengo kopuruarena). %10eko hori ordaindu ahal izateko gizarte langilearen agiria aurkeztu behar dute.

Los miembros de familias con dificultades económicas abonarán el 10% después de aplicar las otras deducciones en GOIZA PASA y actividades de GAZTELEKU, para poder abonar el 10% deberán presentar justificante elaborado por la trabajadora social.

Murrizpen hauek herrian erroldatuta daudenei aplikatuko zaizkie.

Estas deducciones se les aplicarán a las personas empadronadas en el municipio.

Eta Udalbatzak hau onartu du:

ERABAKIA:

Lehen.- Hasiera batean ontzat ematea Udal honetako diru-laguntzen araudiaren aldaketa.

Primero.-Aprobar inicialmente esta modificación al Reglamento de Subvenciones de este Ayuntamiento.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta interesdunei audientzia ematea, 30 egun balioduneko epean.

Segundo.- Someter el expediente al trámite de información pública y audiencia a los interesados por el periodo de 30 días hábiles mediante Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik edo iradokizunik ez badago, akordioa behin betikotzat joko da, eta indarrean dagoen legedia beteko da.

Tercero.-En el caso de que no se hubiese presentado reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo y se procederá de acuerdo con lo señalado en la legislación vigente.

HAMALAU GARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Ez da gairik aurkeztu.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:10ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA